Ekainaren 13ko hauteskundeak Balorazioak

EAJk PSE-EErekin lehen bilera egin du, gobernu koalizioen aukerak aztertzeko

Jeltzaleek biltzar nazionala egingo dute gaur, akordioen inguruko gogoeta egiteko

Agentziak / **Donostia**

Jeltzaleen eta sozialisten arteko bileren berri ezer gutxi jakin bada ere, jadanik biltzen hasi dira, *Europa Press* agentziak atzo adierazitakoaren arabera. Bien bitartean, alderdi guztiak barrura begira azterketak egiten ari dira instituzioetan egin daitezkeen itunen inguruan. Gizarteari begira, ostera, akordioak egiteko baldintzez mintzatu dira.



XOUSE SIMAL

Nicolas Redondo Terreros PSE-EEko idazkari nagusia, artxiboko argazki batean.

EAJ-KO Hegoaldeko lau herrialdeetako biltzarrak egin zituzten atzo, eta gaur, berriz, Batzorde Nazionala izango dute jeltzaleek. Batzar horietan, hauteskunde emaitzen azterketa mahai gainean, instituzioetan gobernatzeko akordioen aukerak aztertzen ari dira.

Bien bitartean, atzo *Europa Press* agentziak emandako informazioaren arabera, EAJ eta PSOEko ordezkariak bildu ziren lehen aldiz akordioak aztertzeko. EAJko ordezkariak zein diren ez du adierazi agentzia horrek, bai ordea, bileran izandako PSOEko ordezkariak zein diren: Nicolas redondo, Jesus Egiguren, Rodolfo Ares eta ziurrenik Txiki Benegas ere izan zen jeltzaleekin bileran.

Era berean, Nicolas Redondo eta Carlos Iturgaitzek ere hauteskunde osteko aurrez aurreko lehen mintzaldia izan zuten atzo, nahiz eta telefonoz behin baino gehiagotan hitz egin duten.

Gauzak horrela, Javier Arenas PPko idazkari nagusiak PSOEko Joaquin Almuniari bi alderdiek akordioak egiteko gutunez egindako eskaeraren harira, PSOEk hainbat adierazpen egin ditu EAJrekin eta PPrekin akordioak egiteko aukerei buruz.

Redondok, Almuniak, Peralesek eta Bellochek orohar hiru ideia kaleratu zituzten atzo: batetik, PPrekin akordioak egongo direnik ez dute baztertzen, Gasteizen adibidez. Bestalde, PPrekin ez duela fronte bat osatuko adierazi dute, hau da populararrekin ez dituztela itun orokorrak egingo, eta, azkenik, EAJrekin akordioak egin daitezkeela diote, «baldin eta Lizarrako akats estrategikoa zuzentzen eta aldatzen badu». Bide horretatik diote, EHrengandik aldendu, eta Ajuria Eneko bidean hiruko gobernuak osatzea dela egokiena «pluraltasuna bermatzeko».

EAE salbuespena da PPrekin itunak egiteko

Atzo Alfonso Perales PSOEko Udal Politikarako idazkariak esan zuen Espainian PSOEren politika orokorra izango dela «aurrerakoiekin» itunak egitea. Ordea, salbuespen gisa aipatu zuen EAE, izan ere, nahiz eta akordio orokorrik ez bada izango, zilegi baita hainbat lekutan akordioak egitea, Lizarrak aurrera egin ez dezan.

EAJrekin itunak egiteko orduan, bestalde, Nicolas Redondok adierazi zuen, aukera ezberdinak ikusi behar direla, eta horretan zeresan handia duela EAJren jarrerak, «HBrengandik aldendu eta pluraltasuna bermatzeko akordio egokiak» egin baitaitezke. Hausnarketa eskatu zien jeltzaleei akordioak egiteko garaian.

Azkenik, Juan Alberto Bellochek ez du uste PPk sozialistei egindako proposamena denik egokiena EAErako, izan ere «EAEn era askotako itunak» egin daitezkeela dio herrialdeetako egoeraren arabera.

«Gogoeta bateratua» egiteko eskatu dio Arenasek PSOEri, EAEko instituzioetan «pluraltasuna bermatzeko»

JAVIER ARENASEK Joaquin Almuniari PPk eta PSOEk elkarrekin itunak egiteko eskatzen zion hausnarketa dela eta ez dela, Arenasek gutunean ematen zituen arrazoietako batzuk hauek dira: Batetik «bi alderdion arteko hausnarketa bateratua egin behar da, EAEko instituzioak hautesleen pluraltasunaren isla izan daitezen». Bestetik, EAEko hauteskunde prozesua Lizarra instituzio guztietara zabaltzeko ideiaren inguruan mugitu dela dio, eta «hautesleek horri erantzun nahi izan diote adiera anitz batekin». Hori dela eta Arenasek uste duenez, «ezinbestekoa da pluraltasun horri erantzutea, eta EAEn normalizazio politikoa lortzeko konpromisoa hartzea Estatutu eta Konstituzioaren izaera integratzailea oinarri harturik».

Jaime Mayor Oreja Barne ministroak, berriz, espero du «PSOE egungo egoerari erantzuteko gai» izango dela, eta konfiantza osoa du, «EAEri, Espainiari, Konstituzioari eta Estatutuari komeni zaiona jakiteko PPrekin hausnarketa foro bat eratzeko gai» izango dela.

PP eta PSOEren eginbeharra da, Mayor Orejaren ustez, hausnarketa hori egitea, «EAEn eta Nafarroan normalizazioa lortzeko».

Azkenik, Ermuko Foroa ere iritzi berekoa da, PSOEk eta PPk akordioak egin behar dituztela-eta. Foro horrek dioenez, alderdi konstituzionalistek «lasaitasunez» egin behar dituzte akordioak, «tranpan» ez erortzeko.

Datorren astelehenean Ermuko foroko kideek PP eta PSOE alderdiekin bilera izango dute Senatuan, «EAEn indarkeria amaitzeko bideak aztertzeko».

Lizarraren gestioa EAJ-EAk zuzendu behar duela dio Oliverik

Agentziak / **Donostia**

«Lizarraren gestioan EAJ-EAk protagonismo handiagoa hartu behar du, eta zuzendu, EAJ-EA baita alderdi indartsuena», adierazi zuen atzo Inaxio Oliveri EAko idazkari nagusiak.

Horrez gain esan zuen bi helburu nagusi dituela EAJ-EAk: «oreka institucional orokorra lortu eta bake prozesuan aurrera egitea». Horretarako beharrezkoa ikusten du Oliverik EHrekin Jaurlaritzako akordioak jarraitzearekin batera, beste alderdi batzuk erakartzea: «ezinbestekoa da PSE-EE Euskal Herrian zabaldu den bake prozesuan barneratzea».

PSE-EE bake prozesuan barneratzeko Lizarra alde batera utzi beharraz galdegin zion kazetari batek, eta Oliverik erantzun zion, «PSE-EE bake prozesuan sartzeko Lizarra gainditu behar bada, gaindituko da. Garrantzitsuena ez da akordioek nola izena duten, baizik eta guztiek batera bakegintzan aurrera egitea».

EAJ-EAk espero zituen emaitzak izan ez arren koalizioaren alde dago Laudioko EAJ

Efe / **Laudio**

LAUDIOKO EAJren exekutibak atzo aitortu zuenez, «EArekin egin koalizioak» ez du funtzionatu, izan ere «emaitzak ez dira iritsi espero genituen helburuetara». Hala ere, EAJk koalizioari eutsiko dio, «epe luzera itxaropenezko proiektua baita». EAJ-EA koalizioak Laudion, 17 zinegotzietatik, bost lortu zituen. EHk, berriz, sei zinegotzi eskuratu zituen eta PPk eta PSE-EEk hiruna.

Laudioko EAJko ordezkariak bat etorri ziren Xabier Arzalluzen adierazpenekin. Arzalluzek esan zuenez, «beharbada koalizioa asimilatzeko denbora gehiago behar da».

Alderdiaren udal taldeak egindako gestioen ondorioak ez zituen baztertu EAJko exekutibak.